

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

### ARABAKO FORU SUHILTZILEAK-BOMBEROS FORALES DE ÁLAVA

**Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoko Administrazio Kontseiluaren 2020ko abenduaren 23ko Erabakia, Arabako Foru Suhiltzaileak-Bomberos y Bomberos Forales de Álava erakunde autonomoaren aldi baterako kontratazio zerrenda kudeatzeko erregelamendua. (Suhiltzaile-Gidaria)**

#### ZIOEN AZALPENA

I. Suhiltzaile-gidarien aldi baterako kontratazioaren zerrenda erakunde autonomoaren plantillan sortzen diren aldi baterako lanpostu hutsak betetzeko aukera ematen duen kudeaketa tresna da, betiere mota horretako kontratazioei galdatzen zaizkien publizitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak errespetatuz.

Aipatutako oinarrizko printzipio horiek honako zerrenda hau sortzen duten hautaketa prozedurei zein horiek kudeatzeko prozedurei aplikatu behar zaizkie.

II. Aldi baterako kontratazio zerrenda hau kudeatzeko erregelamenduaren helburuak honako hauek dira, lehentasun hurrenkeraren arabera:

1) Suhiltzaileen Zerbitzuaren aldi baterako langileen eskaerei erantzuteko gai den aldi baterako kontratazio zerrendaren kudeaketa sistema eraginkorra arautzea.

2) Prozeduran parte hartzen dutenei aldi baterako lanpostu bat betetzeko aukera ematen dien sistema egokitzea, parte hartzaileen interes eta itxaropenari ondoen egokitzen zaizkien baldintzetan.

3) Kudeaketa sistema gardena arautzea, erakundearen, ordezkari politikoen eta sindikalen nahiz interesdunen kanpo kontrola eraginkorra izan dadin, eta, bereziki, funtzionamendua eta arauak gardenak izan daitezen aldi baterako kontratazioaren zerrenda osatzen duten pertsonenentzat.

III. Erregelamendu honi datxekion funtzionamenduaren abiaburuak honako atal hauetan laburbil daitezke:

1) Hautaketa sistemak aukera eman behar du langileak unean-unean prest dauden jakiteko, hautaketa ahalik eta lasterren eta denborarik laburrenean egiteko.

2) Zerrenda hautaketa prozesuetan lortzen diren emaitzen arabera antolatuko da, eta, hala badagokio, erregelamendu honetan araututako birbaremazioaren arabera eguneratuko da.

3) Arabako Foru Suhiltzaileak erakundeak lanpostuak aldi baterako betetzeko beharrianak eskainiko dizkie kontratazio zerrendan dauden pertsoneri, erregelamendu honi, lanpostuaren betekizunei, lan eskaintzaren ezaugarriari eta, ezarritako zehaztapenen arabera, interesdunek parte hartzeko baldintzei jarraiki.

4) Arabako Foru Suhiltzaileak erakundeak informazioa eta sarbidea emango dizkie zerrendako kideei, zerrendan unean-unean duten egoeraren berri izateko eta, hala eskatzen dutenean, parte hartzeko baldintzak aldatzeko.

5) Kontratazio zerrendan parte hartuz gero, parte hartzaileak eskatutako ezaugarriak dituen kontratuaren edo laneko izendapenaren eskaintzari heltzeko aukera ematen du. Aukera hori honako hauen arabera izango da: parte hartzailearen zerrendako hurrenkera, eskatutako gutxieneko baldintzak, dena delako kontratazioaren edo izendapenaren beharrak eta kontratazioaren indarraldia.

## I. TITULUA. ARAU OROKORRAK

### 1. artikulua. Eremu objektiboa eta subjektiboa

Honako erregelamendu hau aldi baterako kontratazio zerrendak sortu eta kudeatzeko prozedurei aplikatuko zaie, suhiltzaile-gidariaren lanpostuetako kontratazio zerrendak aldi baterako betetzeko.

### 2. artikulua. Erregelamenduaren xedea

Erregelamendu honek erakunde autonomoaren suhiltzaile-gidarien aldi baterako kontratazioaren zerrenda arautuko du; zerrenda mota horretako lanpostu bat aldi baterako betetzeko kudeaketa tresna izango da.

Aurrekoa gorabehera, Administrazio Kontseiluak legez araututako beste edozein sistema erabili ahal izango du, egokitzat jotzen badu, horniduraren iraupen laburreratik edo beste arrazoi batzuetatik, hala nola zerbitzu eginkizunengatik, lanpostuen deialdi publikoagatik eta abarretatik.

### 3. artikulua. Erregelamenduaren aplikazioa

Aldi baterako kontratazio zerrendaren sisteman parte hartuz gero, honako erregelamendu hau edo etorkizunean ordeztzen dutenak onartu behar dira, eta zerrendako kideak bertan arautzen diren eskubide eta betebeharren jabe izango dira.

## II. TITULUA. ALDI BATERAKO KONTRATAZIO ZERRENDA SORTZEA ETA OSATZEA

### 4. artikulua. Zerrenda sortzea

Erakunde autonomoaren Administrazio Kontseilua da zerrendaren sorrera onartzeko organo eskuduna.

Hautaketa prozesuetako proba guztiak gainditu dituzten baina lanposturik eskuratu ez duten izangaiek osatuko dute zerrenda; dena dela, 5. paragrafoan araututako prozeduraren arabera handitu ahalko da.

Zerrenda sortzen edo handitzen denean, bertan ageri diren kideak aldi baterako bajaran egongo dira.

Aurrekoa gorabehera, zerrenda sortzeko edo handitzeko unean, aldi baterako kontratazioaren beharra badago, kideak egoera erabilgarrian daudela joko da, eta parte hartzeko baldintzapenak erabateko prestutasunekotzat hartuko dira.

Kasu horretan, eskaintza bati uko egitea ez da zigortuko. Eskaintza horren ondotik, zerrendako kideen aurkako jakinarazpenik ez badago, haien egoerak aldi baterako bajakoa izaten segituko du.

Aldi baterako bajak, alta eskuragarriak, lanpostua eskaintzeko prozedurak eta abar erregelamendu honen hurrengo titulu eta artikuluetan arautzen dira.

### 5. artikulua. Zerrenda handitzea

Handitzeak zerrenda sortzen den unean bertan nahiz indarrean dagoen bitartean egin ahalko dira.

Handitzeak honako prozedura hauen bidez egingo dira:

– Zerrenda handitu daiteke erakunde autonomoaren suhiltzaile-gidariaren lanpostua(k) betetzeko hautaketa-prozesuetako deialdietatik datozen pertsonen zerrendak gehituta. Handitze hori berez egingo da mota horretako hautaketa prozesu bat amaitzen den guztietan, eta hurrengo artikuluan araututakoaren arabera osatuko da.

– Zerrenda handitu daiteke erakunde autonomoak antolatutako hautaketa prozeduretako probaren bat edo batzuk gainditu ez dituzten izangaiek, zerrenda osatzeko deialdietakoak, gehituta, erakundearen Administrazio Kontseiluak onartu ondoren.

– Beste administrazio publiko baten aldi baterako beste edozein kontratazio zerrenda har daiteke, Kudeaketa Zuzendaritzak onetsi ondoren; hark erabakiko du zerrenden indarraldia.

– Zerrenda handitu daiteke aldi baterako kontratazio zerrendaren deialdi espezifikoak gehituta, bai erakunde autonomoak antolatutakoak, bai beste administrazio publiko batzuek antolatutakoak.

#### **6. artikulua. Zerrendaren osaera**

Erakunde autonomoaren suhiltzaile-gidarien kontratazio zerrenda bakarra da, hautaketa prozesu baten emaitza baliatuz eratzen den edo zerrenda horren handitze baten edo gehiagoren bidez eratzen den kontuan hartu gabe.

Kontratazio zerrenda handitzeak baliatuz eratzen bada, zerrendaren hurrenkera ondokoa izango da:

– Lehenik eta behin, prozesu bakoitzaren amaiera hurrenkeraren arabera (erregelamendu honetan jasotako birbaremazioak alde batera utzita), lehentasuna izango dute erakunde autonomoak antolatutako suhiltzaile-gidarien hautaketa prozesuetan plazarik lortu ez duten izangai gaituen zerrendek, zerrenda horiek egin diren dataren arabera antolatuta, berrienetik zaharrena;

– Bigarrenez, hala badagokio, eta Administrazio Kontseiluak onartu ondoren, aurreko zerrenden ondotik, erakunde autonomoak antolatutako hautaketa prozeduretako probaren bat edo batzuk gaitu ez dituzten izangaiek osatutakoak, prozesu bakoitzeko puntuazioaren arabera ordenatuta, eta, gainera, prozesu horiek egin diren dataren arabera, berrienetik zaharrena;

– Jarraian, erakunde autonomoak berak antolatutako kontratazio zerrenden deialdi espezifikoetatik datozen pertsonen zerrendak gehituko dira, deialdiak egin diren dataren arabera ordenatuta, berrienetik zaharrena;

– Azkenik, aurreko guztiaren ondoren, beste administrazio publiko batzuen kontratazio zerrendetan dauden pertsonen zerrenda, eskaera dataren arabera ordenatuta.

#### **7. artikulua. Betekizunak, arduraldia eta bateraezintasunak**

Erakunde autonomoaren lanpostuen zerrendan, lanpostu bakoitzari ezarritako baldintzez gain, suhiltzaile-gidari lanpostuetarako kontratazio-zerrenda osatzen duten pertsonen honako baldintza hauekiko bat bete beharko dute, gutxienez:

Gutxienez urtebeteko esperientzia izatea toki administrazioaren edo foru administrazioaren sektore publikoko suteak prebenitzeko eta itzaltzeko zerbitzuetako kidego, eskala, edo azpieskala batean, suhiltzaile klasean edo kategorian, edo kabu gisa (edo izendapen baliokidea), karrerako funtzionario, bitarteko funtzionario edo lan kontratuko langile moduan.

Arkautiko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian ematen den suhiltzaile-gidarietzako prestakuntza ikastaroa eginda eta gaitututa izatea.

Zerrenda erabiliz kontratatzen diren pertsonen Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legeak eta gainerako legeria konkurren-teak enplegatutako publikoentzat ezarritako arduraldi eta bateraezintasunen inguruko araubidea bete beharko dute.

#### **8. artikulua. Zerrendan parte hartzeko baldintzak: egoerak eta parametroak**

Interesdunak zerrendan parte hartzeko baldintzak aldatu ahal izango ditu, bertan parte hartzeko egoerak eta parametroak aldatzeko eskatuz, betiere zehazten diren bide espezifiko bidez idatziz jakinarazita.

Ez dago aldi berean egoera edo parametro batzuk eskatzerik.

**9. artikulua. Hizkuntza eskakizuna egiaztatzea**

Kontratazio zerrendako kideek edozein unetan egiaztatu ahalko dute euskarazko hizkuntza eskakizunen bat lortu dutela.

Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko, horri lotutako jatorrizko ziurtagiria edo horren kopia konpultsatua aurkeztu beharko da.

Era berean, kontratazio zerrendako kideek idatziz jakinarazi ahal izango dute hizkuntza eskakizunen bat lortuta dutela, eta jakinarazpen horretan, egoera hori egiaztatzeko baimena emango diote erakunde autonomoari, Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuaren bidez (ETZEB).

Egiaztapena egin ondotik, erakundeak hizkuntza eskakizuna egiaztatu den ala ez jakinaraziko du, ETZEBen bidez.

**10. artikulua. Zerrenden birbaremazioa**

Kontratazio zerrendako kideek euskararen I. edo II. hizkuntza eskakizuna atera dutela egiaztatzen badute, puntuazioa birbarematuko zaie eta, ondorioz, zerrendan duten tokia.

Hala, I. hizkuntza eskakizuna izateagatik 5 puntu emango dira; II. hizkuntza eskakizuna edukiz gero, bost puntu gehiago, I. hizkuntza eskakizunaren jabe izanda; eta II. hizkuntza eskakizuna aterata izanez gero, 10 puntu, I. hizkuntza eskakizuna aldeztatik eskuratu ez bada.

III. eta IV. hizkuntza eskakizuna izateak ez du inolako birbaremaziorik eragingo, aldeztatik I. edo II. hizkuntza eskakizuna izan gabe lortzen badira izan ezik; kasu horretan, 5 edo 10 puntu emango dira, aurretiaz I. hizkuntza-eskakizuna eduki edo ez edukitzearen arabera, hurrenez hurren.

**III. TITULUA. ZERRENDAN PARTE HARTZEKO ADMINISTRAZIO-EGOERAK ETA PARAMETROAK****11. artikulua. Zerrendetan parte hartzeko egoerak**

Zerrendari dagokionez, honako egoera hauetan egon daiteke pertsona bat:

- Alta/Erabilgarri.
- Alta/Erabilgarri-Lehentasunezkoa, zuzendari-kudeatzaileak hala ebatzita.
- Jardunean.
- Etendura egoeran eskaintzak jasotzeko.
- Aldi baterako baja.
- Behin betiko baja.
- Erantzuteko aukera.
- Kontratua edo izendapena amaituta.

**12. artikulua. Alta egoera/Erabilgarri**

Alta/Erabilgarri egoera izatea zerrenda honako kasu hauetako bati dagokio:

Zuzendari-kudeatzaileak zerrenda hasi delako jakinarazpena egin ondoren, hautaketa prozesu egokia amaitu ondoren, interesdunak hala eskatuta.

Erakundearen zuzendari-kudeatzaileak ebatzitako aldi baterako baja-aldia amaitu ondoren, interesdunak hala eskatuta.

Borondatezko aldi baterako baja amaitu ondoren, interesdunak hala eskatuta.

Kontratua/izendapena amaitzen denetik. Eskuragarritasun datarik hurbilena indarreko kontratua/izendapena amaitu eta hurrengo eguna izango da, interesdunak hala eskatuta.

Lan eskaintza bati erantzuteko epea amaitzen den unetik, baldin eta interesdunarekiko harremanik egin ez edo jakinarazpenik bidali ezin izan zaionean, edo, baiezko erantzuna eman badu ere, beste izangai batek ere baiezkoa eman badu epearen barruan, eta zerrendan besteak baino toki hobea badu (aldi bereko jakinarazpena izangai batzuei).

Erregelamendu honen 4. eta 19. artikuluetan jasotako kasuetan.

### **13. artikulua. Alta/Erabilgarri-Lehentasunezkoa egoera**

Alta/Erabilgarri-Lehentasunezkoa egoera kudeaketa akatsak edo disfuntzioak konpentsatzeko sistema da, akatsok zerrendan parte hartzen duenari egotzi ezin bazaizkio. Zuzendari-kudeatzailearen baimenaz erabil daiteke sistema hori.

Kontratazio zerrenda batean parte hartzen dutenei soilik eta berehala aplikatuko zaie, baldin eta:

- ezin izan badira lan eskaintza bati heltzeko hautatu, nahiz eta hautatu behar izan diren.
- edo, gerora deuseztatu edo zuzendu den kontratu/izendapen baterako hautatuak izan ondotik, inguruabar horrengatik kalterik hartu badute.

Egoera berezi hori honetan datza: eragindako pertsonak, bat baino gehiago badira, hurrenkerak jakin batean, hautatuak izateko lehentasuna izango dute lehen lan kontratu edo izendapenean, euren kategoriaren barruan hobekuntza ekarrita, betiere eskatzaileak ezarrita zituen gutxienerako baldintzak errespetatuz, hautaketa egiteko unean eragindakoen aurretik erabilgarri dauden beste parte hartzaile batzuk baino lehen.

Kontratatu ondoren, aurreko mailara itzuliko dira zerrendan. Sistema honetatik berariaz salbuesten dira kontratazio edo izendapenen proposamen baliogabetuak edo aldatuak, proposamen horiek beste proposamen batzuekin batera eskaini eta onartu badira eta langilea proposamen horietakoren batean kontraturik badago.

Lehentasunezko alta egoeran dagoen pertsona batek aldi baterako baja eskatzen badu edo parte hartzeko baldintzak aldatzeko eskatzen badu, lehentasuna galduko du.

Erakunde autonomoak bere esku dauden baliabideak jarriko ditu disfuntzioak eragin ditzaketen arrazoiak murrizteko, atzematen diren egoerak ahalik eta lasterren zuzentzeko, kalteuei egoera horren berri emateko eta Jarraipen Batzordeari ahalik eta lasterren jakinarazteko.

### **14. artikulua. Jarduneko egoera**

Kontratazio zerrenda osatzen duten pertsonak jarduneko egoeran egongo dira kontratu edo izendapenen bat onartzen duten unetik bertatik. Kontratu edo izendapen hori indarrean dagoen bitartean, ez da beste eskaintzarik egingo, "ZUZENKO KONTRATAZIOA" edo "KONTRATUA HOBETZEA" modalitateei jarraiki egiten direnak izan ezik.

### **15. artikulua. Etendura egoera eskaintzak jasotzeko**

Ondoz ondoko hiru eskaintzatan harremanetan jartzen saiatu diren eta eskaintzei erantzun ez dieten pertsonak "eskaintzak jasotzeko etendura egoeran" egongo dira. Egoera horren berri emango zaio interesdunari, eta egoera horri eutsiko zaio pertsona erakunde autonomoarekin harremanetan jartzen ez den bitartean, zerrendako kokapenari eta egoerari buruzko datuak berrikusteko.

### **16. artikulua. Aldi baterako baja egoera**

Egoera horretan egongo dira ondoko pertsonak:

1. Borondatezko aldi baterako baja eskatu dutenak.
2. Zuzendaritzak-kudeatzaileak horrela ebatzi badu.
3. Era automatikoan, erregelamendu honen 4. eta 19. artikuluetan araututako kasuetan.

**17. artikulua. behin betiko baja egoera**

Egoera horretan egongo dira ondoko pertsonak:

1. Borondatezko behin betiko baja eskatu dutenak.
2. Zuzendaritza-kudeatzailetzak horrela ebatzi badu.

**18. artikulua. Erantzuteko aukeradunak**

Erantzuteko aukera izango dute kontratu edo izendapen baten eskaintza bidali zaien pertsonak, baldin eta oraindik erantzun ez badiote horretarako ezarritako epearen barruan, betiere aipatutako epea amaitu ez bada.

**19. artikulua. Kontratua edo izendapena amaituta**

Egoera horretan egongo dira kontratu edo izendapenen bat amaitu eta alta/erabilgarri egoera eskatu ez duten pertsonak.

Kasu horretan, aldi baterako, alta/erabilgarri egoeran daudela ulertuko da, baldin eta kontratua edo izendapena amaitzen denetik bost egun balioduneko epean eskaintza berririk sortzen bada. Kontratu edo izendapenaren eskaintzari uko eginez gero, ez dira zigortuko.

Epe hori igarota, kontrakorik adierazten ez bada, aldi baterako baja-egoerara igaroko dira era automatikoa.

**20. artikulua. Zerrendetan parte hartzeko parametroak**

Kontratazio zerrendan parte hartzen duten pertsonak zerrendan zer parametrotan parte hartzen duten zehaztu ahal izango dute, honako hauen artean hautatuta:

- 1. parametroa: erabateko erabilgarritasuna: edozein iraupen aintzat hartuta (orduak, egunak, asteak, zehaztugabea...).
- 2. parametroa: erabilgarritasun mugatua: gutxienez, hiru hilabetekoa izango den begiz jotako iraupena.

**IV. TITULUA. HAUTAKETA PROZEDURA****21. artikulua. Hautaketa baldintzak**

Hautaketa egiteko unean, nahitaez hartuko dira kontuan kontratazio edo izendapenaren eskaintzaren ezaugarriak (iraupena, kontratu mota), eskatutako baldintzak (HE eta abar), zerrendaren hurrenkera eta hautagaiek zerrendan duten egoera berezia.

Hautatua izateko, izangaiak ezingo du une horretan aldi baterako ezintasun-egoeran egon.

Emakume bat alta egoeran eta erabilgarri badago, aukeratu badute eta arrisku haurdunaldian, erditzeko hurrean edo edoskitzaroan badago, bai eta une horretan amatasun eta/edo aitasun lizentzia hartzen ari diren emakumeak eta gizonak ere, lanean hasten ez badira, lanpostuan izendatuak izan ahalko dira kontratua hasten den egunean bertan, administrazio eta ekonomia ondorio guztiekin, lanpostuan benetan hasten direnetik aurrera. Neurri hori, ahal denean, familia- eta lan-bizitza bateragarri bihurtzeko legez araututako egoeretako batean dauden emakume eta gizonei ere aplikatu ahal izango zaie.

**22. artikulua. Ohiko eskaintza**

Alta egoeran edo erabilgarri edo erantzuteko aukera dutenen zerrendan ageri direnen artean egingo da hautaketa, euren hurrenkeraren arabera, eta, hala badagokio, alta egoeran, erabilgarri eta lehenetsizko egoeran daudenak lehenetsiko dira.

### 23. artikulua. Kontratua hobetzeagatiko eskaintza

“Kontratua hobetzea” deritzogu kontratazio zerrenda bateko langileei eskaintzak egiteko prozedurari, baldin eta eskaintza egiteko unean “Jarduneko egoeran” badaude.

Sistema horren barruan eskaini daitezkeen kontratuak edo izendapenak ezaugarri hauetakoren bat dutenak izango dira:

a) Hobekuntza eskaintzen zaion langileak une horretan betetzen duen kontratua edo izendapena baino sei hilabete gehiagoko kontratuak edo izendapenak. Zuzendaritza Kudeatzailtzak zehaztuko du kontratuaren edo izendapenaren begiz jotako iraupena.

b) Hobekuntza eskaintzen zaion langileak une betetzen duen kontratuari edo izendapenari dagokiona baino ordainsari handiagoa duten kontratuak edo izendapenak.

Kontratu baten begiz jotako iraupen zehazteko, ezintasunaren zioz sortzen diren lanpostu hutsek iraupen zehaztugabea izango dute, eta, beraz, ezin izango dira kontratu hobekuntza gisa eskaini, ezintasunaren iraupena dokumentu ofizialen batean berariaz jasota badago izan ezik; kasu horretan, kontratu hobekuntza gisa eskaini ahal izango dira.

Horrelako kontratuak edo izendapenak eskaintzeko prozedura zerrendako kide guztien artean egingo da, zerrendako hurrenkerari jarraiki, baldin eta eskaintza jasotzeko egoeran badaude:

- Alta/erabilgarri, lehentasunezko egoeran ala ez.
- Jarduneko egoeran, prozedura mota honetarako adierazi diren ezaugarriak ez dituzten kontratu eta adierazpenei dagokienez.
- Erantzuteko aukera izanik, prozedura mota honetarako adierazi diren ezaugarriak ez dituzten kontratu eta adierazpenei dagokienez.
- Amaitutako kontratu edo izendapenaren egoeran, hobekuntza eskaintza 19. artikuluan araututako bost egun balioduneko epearen barruan egiten bada.

Lanean ari den pertsona batek eskaintza onartzen badu, automatikoki uko egingo dio aurreko kontratuari edo izendapenari, inolako zigorrik gabe.

Eskaintza onartzen duen pertsonak hutsik uzten duen lanpostua parte hartzeko parametroen arabera eskainiko da, erregelamendu honetan araututako prozedurei jarraiki.

Eskaintza onartzea borondatezkoa da, eta, beraz, ez da onartuko aurreko egoerara itzultzea eskaintza onartu eta gero, ezta hasierako itxaropen edo igurikimenei erantzuten ez badie ere.

### 24. artikulua. Zuzeneko kontratazioa

Langile bat arrazoi jakin batengatik ordeztzen bada eta, ordezpena amaitzean, beste kontratazio edo izendapen bat dakarren beste arrazoi batengatik lanpostuan hasten ez bada, zuzenean hautatuko da aurreko lanpostu hutsa betetzen ari zen pertsona kontratazio edo izendapen berria egiteko, eta kasu horretan, ez da kontratua hobetzeko prozedura aplikatuko.

Era berean, lanpostu sortu berri bat betetzeko, zuzenean hautatuko dira finkatu diren programa lanpostuak betetzen dituzten pertsonak. Finkatutako plazen kopurua programakoa baino txikiagoa bada, aintzat hartuko da hurrenkera.

### 25. artikulua. Prozedurak

Lan eskaintzaren jakinarazpenak prozedura hauetakoren bat erabiliz egingo dira:

- Ohiko prozedura. Jakinarazpena idatziz egin behar da, eta jaso dela egiaztatuko da modu sinesgarrian.
- Presazko prozedura. Presazko prozeduratzat hartuko da lanpostuan hasteko epea egutegiko bost eguneko bako bako denean. Kasu horretan, telefonoz egingo da eskaintza, deituriko zenbakia eta deiaren iraupena erregistratuta. Elkarrizketa grabatzeko sistemak baliatu ahal izango dira. Zerrendako kide bakoitzeko hiru lokalizazio-saiakera egingo dira, ordubeteko tartea utzita saikeraren artean. Kontratazio zerrendako lehen kidea aurkitu ezean, zerrendako hurrengo kideei deituko zaie, lehentasun hurrenkeraren arabera.

**26. artikulua. Izendapenak amaitzea**

Titular berria hasten delako (sartze berria edo lanpostua hornitzea), berriro sartzen delako, langileak birbanatzen direlako edo plazak amortizatzen direlako, izendapenak amaituz gero, edo, bestela, programak amaituz gero, eta eragindako pertsona bat baino gehiago badaude, lanpostu bera eta ezaugarri berdinak dituztela, suhiltzaile etxe guztietan eta erakundeetan bertan gauzatuko dira amaitzeak, zerrendan lekurik txarrean daudenetatik hasita.

**V. TITULUA. FUNTZIONAMENDU ARAUAK****27. artikulua. Kontratua edo izendapena ez onartzea**

Lan egiteko eskaintza bat onartzen ez bada justifikatu ezin den arrazoi batengatik, aldi baterako baja emango zaio kontratazio zerrendan eta idatziz jakinaraziko zaio interesdunari. Honako hauek dira kausa justifikagarriak:

1. Eskaintza egiten den eguna baino 5 egun balioudun lehenagotik gertatu diren eta eskaintza onartzea eragotzi duten inguruabar pertsonal larriak, aurreikusi ezin direnak, behar bezala egiaztatuta.

2. Eskaintza jakinarazi baino bost egun balioudun lehenagotik lan kontratu batean hastea.

3. interesdunaren aldi baterako ezintasun-egoerak, lanpostuan hastea eragozten diotenak, medikuaren ziurtagiriaren bidez egiaztatuta.

Kasu horietan, aldi baterako bajaren iraupena hiru hilabetekoa izango da, lehen aldia bada, eta urtebetekoa, urtebetetik beherako aldiaren eskaintza bati uko egiten zaion bigarren aldia bada.

Aipatutako arrazoiengatik eskaintza bat onartu ez dela justifikatzen ez bada, edo justifikatzen bada ere, eskaintza bat modu justifikatuan baztertzeko den hirugarren aldia bada, Zuzendaritza Kudeatzailtzak kontratazio zerrendan behin betiko baja emateko ebazpena emango du.

**28. artikulua. Kontratu edo izendapenari uko egitea**

Interesdunak lan kontratu edo izendapen bati borondatez uko egiten badiu kontratuaren indarraldiaren barruan, behin betiko baja emango zaio zerrenda egokian, uko egitea erakunde autonomotik kanpoko kontratazio justifikatu baten ziozkoa denean izan ezik.

Erakunde autonomotik kanpoko beste kontratazio batzuen ziozko borondatezko ukoek 6 hilabeteko aldi baterako baja ekarriko dute kontratazio zerrendan.

**29. artikulua. Kontratua edo izendapena hutsaltzea**

Kontratua edo lan izendapena amaitu aurretik hutsaltzen bada, zerbitzuak hala eskatuta, langilearen onespenerekin eta erakundearen zuzendaritza- kudeatzailtzak baimenduta, ez da aldi baterako edo behin betiko baxarik sortuko aldi baterako kontratazioaren zerrendan.

**VI. TITULUA. KONTRATAZIO ZERRENDAREN JARRAIPENA ETA KONTROLA****30. artikulua**

Erakunde autonomoan ordezkariak duten sindikatuak, aldeztu aurretik eskatuta, zerrenden egoera zein den jakin ahalko dute, eta egindako aukeraketarako sarbidea izango dute, bai eta horietan oinarrituta egindako kontratazioetara ere.

**31. artikulua**

Zerrendako parte hartzaileek nork bere egoerari buruzko informazioa eskatu ahal izango dute (aurretik erabilgarri dauden pertsonen kopurua), eta haien zer datu jasota dagoen jakiteko eskaera egin ahalko dute, baina egoera pertsonalaren aldaketak jakinarazi beharko dituzte (altak, bajak, parte hartzeko aldagaien aldaketak, bizileku aldaketak...).



**32. artikulua**

Zuzendaritza Kudeatzailtzak eta langileen ordezkariak osatuko dute Zerrenden Kudeaketaren Jarraipen Batzordea.

**33. artikulua**

Batzorde horren eginkizunak hauexek dira:

- 1) Egindako kontratazioen jarraipena egitea, zerrenden egungo kudeaketa sisteman oinarrituta.
- 2) Kontratazio zerrendetako kideek aurkezten dituzten erreklamazioei buruzko ebazpenak aztertzea eta Zuzendaritza Kudeatzaileatzari proposatzea.
- 3) Zuzendaritza Kudeatzailetzari Funtzionamendu Erregelamenduaren inguruko aldaketak proposatzea, edo, hala badagokio, funtzionamendu erregelamendu berriak proposatzea.
- 4) Kontratazio Zerrendaren beharrak aztertzea, eta Zuzendaritza Kudeatzailetzari lehendik dagoena handitzeko proposatzea.
- 5) Erregelamendu honetan jasotzen ez diren kasuen ebazpena proposatzea, bai eta horren interpretazioa ere.
- 6) Hala badagokio, Partzuergoren kudeatzailetzari Alta-Lehentasunezko egoeraren deklarazioa proposatzea.

**34. artikulua**

Zerrenden Kudeaketaren Jarraipen Batzordea adostutako egutegiaren arabera bilduko da, eta, beharrezkotzat jotzen denean, alderdietako batek proposatuta.

**35. artikulua. Kontratazio zerrenda argitaratzea**

Kontratazio zerrenda eta haren handitzeak erakunde autonomoaren webgunean argitaratuko dira, honako hauek adierazita: kideak, zerrenda horietan parte hartzen dutenen hurrenkera, zerrendaren barruan duten egoera eta garrantzitsutzat jotzen diren gainerako datuak. Zerrenda ahalik eta maiztasun handienarekin eguneratu beharko da.

Xedapen iragankorra eta indarrean hastea

Erregelamendu honek aurrekoa ordeztuko du, eta Erakundearen Administrazio Kontseiluak onartzen duenean hasiko da indarrean, haren webgunean ere argitaratu behar bada ere.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko abenduaren 23an

*Administrazio Kontseiluko idazkaria*  
**FRANCISCO JAVIER CARRO IGLESIAS**